

berrindartu zure enpresa euskararekin

IRUDIA ETA ERROTULAZIOA

Euskarriak	Kostuaren %	Gehienez
Errotuluak		
Errotulu nagusia	%50 €	180 €

PERTSONALAREN HIZKUNTZAZKO GAITASUNA

Euskara ikastaroak

Euskalduntzeko, alfabetatzeko eta euskara teknikoko ikastaroak.

- Euskaltegiko ohiko taldeetan parte hartzeko aukera: %80 edo %100eko diru-laguntza, udalak jarritako baldintzak betez gero.
- Euskaltegietan sektoreka antolatutako ikastaroetan trebatzeko aukera. Euskara zerbitzuaren baliabideen arabera aztertuko da kasuan kasukoa.

Baldintzak

- Errotuluan jarritakoa izen propioa besterik ez bada, ez da diru-laguntza jasoko.
- Testua euskara hutsean baldin badago bakarrik lagunduko da diruz.
- Errotuluan agertuko den testua euskaraz zuzen idatzita egongo da.
- Testuak Euskara Zerbitzuaren oniritzia jaso behar du errotulua egin baino lehenago.
- Errotulurako diru-laguntza gehienez ere 180 eurokoa izango da.

Prozedura

- Euskara Zerbitzura eraman behar dira: aurrekontua, errotuloaren testua eta diseinua. Ondoren, Euskara Zerbitzuak ebaluatu eta laguntza bidera daitekeen ala ez erabakiko du.
- Laguntza-eskaera Udaleko Erregistroan aurkeztu behar da.
- Diru-laguntza jaso ahal izateko, egindakoa nola gelditu den erakutsiko duen froga bat eraman behar da Euskara Zerbitzura, fakturaren kopia batekin.

